



HONDARRIBIKO UDALA

Artxibo Orokorrari Kontsultak egitea¹

→ Espediente edo agiri administratiboak kontsultatzeko eskaera BAZen aurkeztuko dute espedienteen titularrek edo interes legitimoa edo zuzena egiaztatzen duten hirugarrenek, aurrez aurre edo elektronikoki,

<http://www.hondarribia.eus/eu/izapide-udal-erregistroa>

bertan deskribatuko dira, modu arrazoituan, kontsultaren arrazoia eta xedea.

→ Eskatzaileak zuritu egin beharko du kontsultatu nahi dituen espediente edo agiri administratiboekiko duen interesa, eta egiaztatu egin beharko du titularrak dela, edo hirugarrenen bidez frogatu beharko du interes legitimo edo zuzena duela.

- Eskatzaileak nahitaez aurkeztu beharko du: Kontsultatzailearen NAN, eta titularraren NAN -kontsulta eskuordetuz gero-.
- Interes legitimoa egiaztatzeko egiaztagiria, besteak beste, batez ere hirigintza alorreko espedienteetan; hauek izango dira:
 - Etxebizitza, lonja, eta abarren salerosketa Eskrituren Kopia.
 - Alokairu Kontratuaren Kopia, bere izenean badago; bere izenean ez badago titularraren baimena, haren izenean.
 - Jabekide Elkargoaren edo Komunitateko Administratzailearen baimena, kontsultatu nahi den eraikuntza espedientea eskuratzeko.

→ Azkenik Artxibo Orokorrak kontsulta ebatziko du, kontsulteren sarrera hurrenkerari lehentasuna emanez.

Hondarribiko Udal Artxiboa
2018ko Ekaina

¹ Hondarribiko Udal Artxiboko Funtse eta Dokumentuetara Jotzeko Arauak (GAO 201 zk., 2007ko urriak 15)

² BAZ, Herritarrei Artea-Zerbitzua